

PRENTSA OHARRA

LANEKO PSIKOSOZIOLOGIARI BURUZKO OSALANEN XI. JARDUNALDIA

Osalanek 400 pertsona bildu ditu telelanaren prebentzioaren erronka berriak aztertzeko

Barakaldo, 2021eko azaroaren 12a.- Gaur goizean Laneko Psikosoziologiari buruzko jardunaldia ospatu da. Osalanek antolatu du, eta telelanak lan-arriskuen prebentziorako dituen erronka berriak izan ditu hizpide.

Jardunaldi honen aurkezpenean jasotzen den bezala, telelana aukera gisa sartu da enpresa-jardueran. Aukera horrek, zalantzarik gabe, hainbat abantaila ditu, bai ingurumenerako, bai enpresetarako, baina arriskuak ere badakartza langileen osasunerako: hiperkonexioa, isolamendua, despertsionalizazioa, lana familiaratik deskonektatzeko zailtasunak eta telelanari lotutako beste faktore batzuk.

Inaugurazio-ekitaldian egindako hitzaldian, Osalaneko zuzendari nagusiak gogorarazi du enpresaburua dela, kasu horietan ere, bere plantillaren laneko segurtasuna eta osasuna zaintzeko arduraduna, eta, horregatik, Osalanek kasu horietan aplikatu ditzakeen tresnak ematen saiatzen dela: « Zer gertatzen den, zergatik gertatzen den eta pertsonari zenbat kalte eragin diezaiokeen identifikatu behar da, prebentzio-neurriak proposatzeko eta kalte horiek saihesteko», aipatu du Lourdesek.

Neurri horiek, adin digitalean lan egiteko modu berrien kasu zehatzei zuzenduak, antolamendu-neurriak hartu behar dituzte nahitaez: lankideekiko konexioak, aurrez aurreko bilerak talde eta agintariek, egin beharreko edukiaren jarraibide egokiak (zereginak, helburuak), azken finean, isolamendu-sentsazioa edo telelanak ekar dezakeen hiperkonektagarritasunerako joera gutxitzeko neurriak.

«Aurrez aurreko modalitatean bezala, telelanerako beharrezkoak diren tresnak ere badaude: integrazioa, prestakuntza, parte-hartzea, ebaluazioa, plangintza eta etengabeko jarraipena», ondorioztatu du zuzendari nagusiak.